

# Diru-sarrerak



## - **Hasierako finantzaketaren diru-sarrerak**

Hasierako kostuei aurre egiteko, 25.000€-ko kapitala jarriko dugu denon artean.

## - **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Lau bezero desberdin bereizten ditugunez, hauek, behar mota desberdinak izango dituzte. Honekin, bezero mota bakoitzak ordaintzeko prest egongo denaren kantitatea ere desberdina izango da.

Bezero motak:

→ Bezero arrunta: Oinarrizko beharrak ditu, eta deskontuak eskuratzeaz gain birziklatzen ikastea nahiko du. Bi helburu horiek lortzeko ordaintzea ez da beharrezkoa beraz, doainik izango da. Bezero hau izango da denetan ugariena. Izan ere, publizitate asko ikusi beharko du eta honekin gure diru sarrerak igoko dira.

→ Bezero *premium*-a : Hauek konplexuagoak dira. Behar gehiago dituzte. Ongi birziklatzen ikastearekin batera, *premium* atalak jada aurrean aipatutako bezeroek dituzten deskontuez gain, haratago joaten diren deskontuak izango dituzte eskuragarri eta hori gutxi balitz, ez dute publizitaterik ikusi beharko. Zerbitzu hauek 3,99€ hilero ordainduz gero egongo da eskuragarri.



→ Enpresa bezeroa: Guk haiei eskainiko diegun zerbitzuengatik, hots, publizitatea aplikazioan txertatzeagatik, diru kopuru bat eskuratuko dugu. Aipatu behar da enpresa guztiek ez dutela berdina ordainduko, hau da, enpresaren tamaina, garantzia eta prestijioaren arabera joango dira ordainketak.

→ Enpresa kolaboratzaileak: deskontuak egingo dituzten bezeroak dira.

Aipatutako lau bezero mota hauek gure diru-iturriaren oinarri izango dira. Bezero arruntak nahiz eta ez duten berezko suskripziorik ordainduko, gure aplikazioan jartzen dugun publizitatea agertuko zaie. Hori izango da gure diru iturrietako bat. Sarreren %80 a publizitatea aplikazioan jarri nahi duten enpresak ordainduko dute. Portzentai honetatik %50 publizitatea eskaintzeaz gain deskontuak jarriko dituzten enpresak izango dira, ordainketa erabiltzaile kopuruarekin aldatu daiteke eta 10.000-30.000€ izango da urtean. Beste %30 soilik publizitatea txertatu nahi duten enpresak dira eta kostua txikiagoa izango da 5.000-15.000€ urtean. Beste %20 a bezero *premium*-ek ordaindutako kantitatearen bitartez eskuratuko dugu. Lehen urteko diru estimazioa, 95.000€ izango da, baina kapital kantitate honi kostu ugari kendu behar zaizkio.